

Bere poemak maite ez zituen gizona

Joxe Azurmendik ez ei zuen bere poesia sobera maite. Uler dezaket zergatik: pentsamendua iragazten zitzaion taigabe neurtitzen artera. Galderak zituen golde («nork nahi du gaur gizon bat ezertarako!») eta burubideak kateatzeak sabotatu egiten zuen poesiari –poesia mota jakin bati– eskatzen zaion trinkotasuna. Alta, poeta krisian dagoen filosofo bat baino ez balitz? Agian kontrakoa da: krisian dagoen poeta da filosofoa. Asko hitz egin izan da *pentsamenduaren poesiaz*, eta nago zaila dela pentsamendu printzarik gabeko poesiarik ontzea. Besterik da, noski, norbere hausnarketarako joera erreprimitu behar izatea, zergatik-eta, uholde sartzen delako poemaren barrura; erritmoa eman diezaioke horrek, baina gehiegikeriatzat jo daitekeen kapilarizazio bat ere sortzen du. Kontraesan, xehetasun, kronika eta aldarri lar adarkatuko balira poemaren baitan, harmoniaren kalte. Trukean, jario horrek mugimendua ematen dio poemari, amaitu gabeko prozesu baten lorratz bizia utziz. *Hitz berdeak* irakurtzea geiserrak zapaltzen joatea da: «Nork geldo lezake borbor hau, *jainkoarren?*», pentsatzen du irakurleak. Azurmendirena, inork ez. Horregatik utzi zuen poesia eta migratu zuen saiakerak idaztera.

Hitz berdeak egituratik bertatik da anbiziotsua, oro besarkatu nahi du: langileria du gogoan, baina Axular eta Etxahunekin mintzo da eta berdin sar liteke Prometeoren larruan. Apokalipsiaren zaldi tisikoak aipatzen ditu, metafisikarik ikasten ez duten poliziak. Ulu dagi eta xuxurla. Helsinkin eta Erroman promenatzen da, Euskal Herrira begira egon arren. Badira poema sozialak, alegorikoak, *carpet de voyage* itxurako postalak... Azken horiek dira beren laburrean lirikoenak eta trinkoenak, beharbada, maitasun poemekin batera («Ez da idazten dizudana/ bihotzean neukana./ Hura bihotzean gelditu da»). Sotana erantzeko afana etengabea da, azala haragi bizitan uzteraino, eta euskalduagoa iratzarri eta kuraia biltzeko irrintzi-poemak ere ez dira falta («Hik

nahiago duk gezur txuria/ egia trixtea baino./ Nahiago duk egia baino konforta./ Nahiago duk galderaren ajedreza baino/ obedientziaren jakematea»).

Ariketa bizigarria zait bere poemen barruko poematxoak ehizatzea. Aitaren heriotza kontatzen duen poemaren amaiera, kasu, durduzagarria da guztiz: «Pasatu zen./ Gero: geldi zegoen./ Erabat geldi, etxean dena./ Dena geldi, eta berdin». Bai, bazekien paisaia nola izoztu: «Hilda aurkitu dot koblaria:/ lurrian etzanda,/ izarrak begira,/ bihotzean bala bat/ ta ondoan, geldi, zaldia». Hitz eta keinu literario askok ez dute gaurkotasunik galdu: «Espainia-ren lurralde./ Ta eguzkia,/ zabal-zabal./ Aide-zero desauziatu zero guztia».

Zehaztasuna ote poeta eta filosofoa lotzen dituen? Estiloan du oihartzun zehaztasunak: «Inoiz etsi behar izan nuen,/ ames amesegi baitzen». *Amets ametsegi*. Esan liteke hobeto? Umorea txertatzen ere badaki, nahi duenean, *Ezkontza* poeman, kasu: «Zorionak opatzea ez ahazteko/ abixatu didate lagunek./ Zorionak, ba./ Suberterik baduzu, zorionak./ Ta ez baduzu, behintzat zure engainua desengainatu/ izango duzu. Eta zorionak.»

Langileen bekokian izerdi lokatzaren orde zentsamendua ikusi nahi zuen, baina bazuen hor ere kezkarik: «Bainan gure zentsamentu hau/ al zaio inori interesatuko?». Galdera golde... Poeta izatea nazkagarria zela idaztera iritsi zen («Herriak sofritzen dauden artean/ beti dira poetak astiarekin rinozeronteari kilimak egiteko, [...] delfinak orrazteko»).

Jainko bat edo gizon bat asmatu behar ote zuen zalantza egiten du Azurmendik. Zalantza horren aurrean, garbi dago poesia ez zela nahikoa.

Ba goaz, joan,
zentsamentutik bizitza
eror dakigun arte
ta azkena itzali.
Gero? Erokeria duk
galdetzea.